## Le Centre Communal d'Action Sociale

Le C.C.A.S. anime une action générale de prévention et de développement social de la commune. Il met en place et anime les orientations sociales adoptées par le Conseil municipal. Il exerce sa mission en liaison étroite avec les institutions publiques et privées (Caisse d'Allocation Familiale, Mutuelle Sociale Agricole, associations, etc…). Il est géré par un Conseil d'Administration composé du Maire, Président de droit, de huit membres élus en son sein par le Conseil municipal et de huit membres n'appartenant pas au Conseil municipal, nommés par le Maire. Ces derniers membres participent à des actions de prévention, d'animation ou de développement social dans le milieu associatif ou autre.

## Gizarte Ekintzako Herriko Zentroa

GEHZk herriko prebentzio eta garapen sozialerako ekintza orokorra bultzatzen du. Herriko kontseiluak hartutako gizarte orientabideak plantan ematen eta sustatzen ditu. Erakunde publiko eta pribatuekin (Familien Laguntza Kutxa, Laborantzako Gizarte Mutualitatea, elkarteak eta abar) harreman estuan jarduten du.

Administrazio Kontseilu batek administratzen du. Administrazio Kontseilua zuzenbideko lehendakaria den auzapezak, herriko kontseiluak bere baitan hautatutako zortzi kidek eta herriko kontseilukoak ez diren eta auzapezak izendatutako beste zortzi kidek osatzen dute. Azken kide horiek prebentzio, animazio edo garapen sozialeko ekintzetan parte hartzen dute elkarte munduan edo besteren batean.

**Centre Communal d'Action Sociale**
14 avenue de la mairie
64250 CAMBO-LES BAINS

*Au 1er étage du Centre Multi-Services*

**Horaires**

**Ouverture du C.C.A.S. du Lundi au Vendredi de 09h00 à 12h30 et de 13h30 à 17h00.**
**Accueil du public le matin**
**(L'après-midi uniquement sur rendez-vous)**

**Secrétariat du C.C.A.S**
**Tél. : 05.59.93.50.76**
(Ligne ouverte exclusivement le matin)
Fax : 05.59.93.50.61
ccas@mairie-cambolesbains.fr

**Gizarte Ekintzako Herriko Zentroa**
Herriko Etxeko etorbidea, 14
64250 KANBO

*Zerbitzu Anitzeko Zentroa, 1. estaia*

**Ordutegia**

**GEHZ zabalik da astelehenetik ostiralera 09:00etatik 12:30era eta 13:30etik 17:00etara.**
**Goizetan jendea errezibitzen da**
**(Arratsaldetan hitzordua hartu behar da)**

**GEHZko idazkaritza**
**Tel.: 05.59.93.50.76**
(Linean goizetan bakarrik irekirik)
Fax : 05.59.93.50.61
ccas@mairie-cambolesbains.fr

↑ Vers Bayonne ↑ ↑ Baionara buruz ↑




↓ Vers Hasparren ↓ ↓ Hazparnera buruz ↓



## Les attributions obligatoires du C.C.A.S.

> <u>La Procédure de domiciliation</u>

Le C.C.A.S. est chargé de domiciliation des personnes sans domicile fixe, en habitat mobile ou précaire, afin de leur permettre d'avoir une adresse pour faire valoir leurs droits sociaux tels que la Couverture Maladie Universelle (C.M.U.) ou le Revenu de Solidarité Active (R.S.A.).

## GEHZren nahitaezko ahalmenak.

> <u>Helbideratzeko prozedura</u>

GEHZ arduratzen da bizileku finkorik gabeko pertsonak bizileku mugikorrean edo prekarioan helbideratzeaz, beren gizarte-eskubideak erabiltzeko helbide bat izan dezaten, haietan Eritasun Geriza Orokorra (CMU) edo Elkartasun Aktiboaren Laguntza (RSA).

> La Lutte contre l'exclusion

Le C.C.A.S. prend les dispositifs nécessaires pour

- informer chacun de la nature et de l'étendue de ses droits
- aider la personne par un accompagnement personnalisé
- accomplir les démarches administratives ou sociales nécessaires à leur mise en œuvre dans les plus brefs délais.

> L'instruction des demandes d'aide sociale légale

Le Centre participe à l'instruction des demandes d'aide sociale légale aux personnes âgées, handicapées ou démunies par l'établissement des dossiers correspondant et leur transmission à la Maison de la Solidarité Départementale (M.S.D.). L'Aide Sociale à l'Enfance (A.S.E.) et le R.S.A. sont à la charge des services sociaux de la M.S.D. de Cambo-Les-Bains. La C.M.U., quant à elle, est à la charge de la Caisse Primaire d'Assurance Maladie (C.P.A.M.).

## Les attributions facultatives du C.C.A.S.

En qualité d'organe exécutant de la politique sociale du Conseil municipal, le C.C.A.S. a créé et gère différents services d'aide aux personnes les plus démunies, et aux personnes âgées et/ou handicapées.

> Le service social

Il gère les attributions obligatoires, assure la mise en œuvre et le suivi des prestations de services aux personnes, reçoit et prend en charge les personnes seules ou les couple sans enfants à charge, informe et oriente, apporte une aide administrative ou psychologique ponctuelle ou suivi. Il assure le relais entre les

> Bazterkeriaren aurkako borroka

GEHZk behar diren neurriak hartzen ditu:

- norberaren eskubideen izaera eta hedaduraren berri emateko
- pertsonari laguntza pertsonalizatua emateko
- eskubideak aplikatzeko egin behar diren administrazio edo gizarte desmartxak ahalik eta lasterren egiteko.

> Legezko gizarte laguntzaren eskaerak bideratzea

GEHZk parte hartzen du adineko pertsonen, pertsona elbarrituen edo ezinduen legezko gizarte laguntzaren eskaerak bideratzean. Horretarako, dosierrak osatzen ditu eta Departamenduko Elkartasunaren Etxera (MSD) igortzen ditu. Haurrentzako Gizarte Laguntza (ASE) eta Elkartasun Aktiboaren Laguntza (RSA) Kanboko Departamenduko Elkartasunaren Etxeko gizarte zerbitzuen ardurapean daude. Eritasun Geriza Orokorra (CMU), berriz, Erien Asurantza Kutxaren (CPAM) ardurapean dago.

## GEHZren hautuzko ahalmenak.

Herriko kontseiluko gizarte politikaren organo betearazlea da GEHZ. Horregatik, premia handiena duten pertsonei, adineko pertsonei edota pertsona elbarrituei laguntzeko hainbat zerbitzu sortu eta kudeatu ditu.

> Gizarte zerbitzua

Nahitaezko ahalmenak kudeatzen ditu, pertsonei ematen zaizkien zerbitzuen aplikazioa eta jarraipena bermatzen ditu, bakarrik dauden pertsonak edo seme-alabarik ez duten bikoteak hartzen eta laguntzen ditu, informazioa eta orientazioa ematen ditu, laguntza administratibo edo psikologiko puntuala edo

différentes administrations et partenaires sociaux comme le Conseil Départemental qui prend en charge les familles avec leurs enfants.

jarraitua ematen du. Hainbat administrazio eta gizarte-bazkideren arteko bitartekaritza bermatzen du, haietan familiei seme-alabekin laguntzen dien departamenduko Kontseilu Orokorra.

> Le service d'aide à domicile

Ce service est actif depuis le 1er novembre 1975. En 2019, il est intervenu auprès d'une centaine de bénéficiaires âgés et/ou handicapés par l'intermédiaire de plus d'une quinzaine de travailleurs à domicile attentifs à la qualité du service rendu.

> Le service de portage de repas

Ce service a été créé le 29 avril 1992. En 2019, 15 400 repas ont été distribués auprès d'une cinquantaine de bénéficiaires. L'agent chargé de cette fonction permet aussi d'assurer un suivi de ces bénéficiaires souvent isolés.

> L'aide à la cantine

C'est une aide financière accordée aux familles afin de réduire le coût de la cantine.
En 2019, 99 enfants ont pu bénéficier de cette aide.

> L'aide au chauffage

Cette aide financière est accordée dans le but de réduire les frais de chauffage des personnes en situation financière précaire.
En 2019, 31 personnes ont pu bénéficier de cette aide.

> L'aide financière

Cette aide est destinée aux personnes ayant des ressources trop faibles pour faire face aux besoins engendrés par le handicap, l'âge, la maladie, la dépendance, les difficultés

> Etxeko laguntza zerbitzua

Zerbitzu hau 1975eko azaroaren 1etik dago aktibo. 2019an, ehun onuradun zahar edota elbarritu ingururekin hartu zuen esku, etxean emandako zerbitzuaren kalitatea zaintzen duten hamabost langile baino gehiagoren bidez.

> Apairuak etxera eramateko zerbitzua

Zerbitzu hau 1992ko apirilaren 29an sortu zen. 2019an, 15.400 apairu banatu zitzaizkien 50 onuradun ingururi. Gainera, eginkizun horretaz arduratzen den langileak askotan bakarturik dauden onuradun horien jarraipena egiteko aukera du.

> Jantegiko laguntza

Familiei jantegiaren kostua murrizteko emandako diru laguntza da.
2019an, 99 haurrek jaso zuten laguntza hori.

> Berokuntza-laguntza

Diru laguntza hau ematen da egoera ekonomiko ahulean dauden pertsonen berokuntza-gastuak murrizteko.
2019an, 31 pertsonak jaso zuten laguntza hori.

> Ezohiko diru laguntzak

Laguntza hau elbarritasunak, adinak, gaixotasunak, mendekotasunak, zailtasun sozial edo ekonomikoek sortutako beharrei aurre egiteko baliabide ahulegiak dituzten

sociales ou économiques. En 2019, 10 personnes ont bénéficié de cette aide.

> <u>Le secours d’urgence</u>

Il représente une aide financière urgente, accordée aux personnes dont les ressources sont trop faibles pour subvenir à leurs besoins primaires (comme se nourrir). Le montant de l’aide est évalué par l’assistante sociale du Centre Communal d’Action Sociale.

pertsonentzat da. 2019an, 10 pertsonak jaso zuten laguntza hori.

> <u>Larrialdiko laguntza</u>

Premiazko diru laguntza da, oinarrizko beharrak asetzeko (elikatzeko, adibidez). Baliabide baxuegiak dituzten pertsonei ematen zaie. Gizarte Ekintzako Herriko Zentroko gizarte laguntzaileak ebaluatzen du laguntzaren zenbatekoa.